# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### 1380

30/2007 DEKRETUA, otsailaren 20koa, Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritza sortzen eta arautzen duena.

Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko martxoaren 15ean onartutako Euskal Autonomia Erkidegoaren Kanpo Harremanetarako Estrategiaren baitan, Eusko Jaurlaritzak kanpo-harremanen alorrean izango dituen jarduera-ildoen plangintza zehaztu da VIII. legegintzaldirako. Dokumentu horren ardatzen artean nabarmentzekoak dira, zehazki, euskal gizataldeekiko harremanak, erakunde aldeanitzetan parte hartzea, sektore jakin batzuek atzerrian duten ordezkaritzak bultzatzea eta Euskadik atzerrian dituen ordezkaritzak.

Joan den legegintzaldian argi geratu zen atzerrian ordezkaritzak sortzeko beharra. Izan ere, Bruselakoarekin batera, ordezkaritzek erraztu egingo diote Euskadiri lankidetza-lotura bereziak dituen herrialdeekin harremanak izatea. Jaurlaritzak politika hori sakontzeko xedea ezarri du, eta ildo horretan Europako nahiz Ipar Amerikako zenbait herrialdetan ordezkaritzak irekiko ditu, Estatu Batuetako ordezkaritzari lehentasuna emanda.

Maiatzaren 27ko 8/1994 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanei buruzkoak, bere helburuen artean zehaztu zituen, besteak beste, harreman sozialak, kulturalak eta ekonomikoak instituzionalizatzea eta atzerrian diren euskaldunei bultzada eta babes integrala ematea; eta zenbait eskubide eta prestazio onartu zituen horretarako. Legea indarrean sartu zenetik, lankidetzan aritzeko eta parte hartzeko modu egokiak ezartzeko beharra nabaritu da, helburuok era eraginkorragoan lortuko badira behintzat. Hartara, Estatu Batuetako euskal gizataldeekin badago harreman egonkor bat, bai North American Basque Organization (Ipar Amerikako Euskal Erakundeen Elkartea) erakundearen bidez, bai eta aitortutako beste euskal etxe batzuen bidez ere.

Uztailaren 7ko 23/1998 Estatuko Legeak, Garapenerako nazioarteko lankidetzari buruzkoak, gizakion garapen globala sustatzeko beharra onartu du, garapenerako lankidetzako politika eraginkorrak eta koherenteak bultzatze aldera. Horren guztiaren helburua da munduko pobrezia desagerraraztea, bai eta garapen bidean diren herrialdeetan garapen ekonomiko jasangarria eta iraunkorra indartzea ere. Ildo horretan, legeak

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### 1380

DECRETO 30/2007, de 20 de febrero, por el que se crea y regula la Delegación de Euskadi en Estados Unidos.

La Estrategia de Acción Exterior de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobada por Consejo de Gobierno de 15 de marzo de 2005, contiene la planificación de las líneas de actuación del Gobierno Vasco en materia de Acción Exterior para la VIII Legislatura. Entre los ejes del citado documento destacan las relaciones con las colectividades vascas, la participación en Organismos Multilaterales, el impulso de la presencia exterior de carácter sectorial, y las Delegaciones de Euskadi en el exterior.

A lo largo de la pasada Legislatura se puso de manifiesto la necesidad de crear Delegaciones en el exterior, que junto con la de Bruselas, facilitarán un marco de relación con los países con los que Euskadi mantiene lazos especiales de colaboración. El Gobierno se marca como objetivo seguir profundizando en esta política, con la apertura de Delegaciones en algunos países de Europa y de América del Norte, entre los que Estados Unidos se erige como prioridad.

La Ley 8/1994, de mayo, de Relaciones con las Colectividades y Centros Vascos en el exterior de la Comunidad Autónoma del País Vasco, marcó entre sus objetivos el de institucionalizar las relaciones sociales, culturales y económicas y el del fomento y la protección integral de los vascos en el exterior, mediante el reconocimiento de una serie de derechos y prestaciones. Desde su entrada en vigor se ha apreciado la necesidad de establecer cauces adecuados de colaboración y participación, en aras de lograr una mayor efectividad en la consecución de los objetivos marcados. Así, con la Colectividad Vasca en EEUU, existe una relación regular a través de la North American Basque Organization (Federación de Entidades Vascas de EEUU) y otros Centros Vascos reconocidos.

La Ley estatal 23/1998, de 7 de julio, de Cooperación Internacional para el Desarrollo, consagra la necesidad de promover un desarrollo humano global, en orden a asegurar y potenciar la eficacia y coherencia de las políticas de Cooperación para el Desarrollo, con el objetivo de erradicar la pobreza en el mundo, así como la promoción de un crecimiento económico duradero sostenible en los países de desarrollo. En este sentido

berak ezartzen duenez, autonomia-erkidegoetan egiten diren ekintzak gizartearen beraren elkartasunetik sortutako adierazpenen ondorio dira. Ekintza horiek autonomia-erkidegoko aurrekontuetan eta erkidegoak gai horren inguruan hartutako erabakietan eta ekintzetan oinarritzen dira. Testuinguru horretan, Estatu Batuetan ordezkaritza izatearekin errazagoa izango litzateke erakunde aldeanitzekin lankidetzan aritzea Euskadiren jarduera solidarioa sustatzeko.

Ekonomiari dagokionez, industriaren alorrean lehendik ere badira jarduera erregularrak eta onak SPRIren Chicagoko bulegoaren bitartez. Horrez gain, zientziaren, teknologiaren, justiziaren edo kulturaren alorretan ere badira harremanak, eta ororen artean Bilboko eta Estatu Batuetako Guggenheim museoen artekoa nabarmentzen da.

Ekintza horiek guztiek duten garrantzia ikusita, komenigarria da Euskadiren ordezkaritza sortzea Estatu Batuetan.

Ondorioz, Lehendakaritzak hala proposaturik, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko otsailaren 20an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Sorrera.

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritza sortu da Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren baitan.

*2. artikulua.*– Aplikazio-eremua.

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoak zenbait arlotan duen ordezkaritza-organoa da: zehazki, garapenerako lankidetzaren arloan, euskal gizataldeekiko harremanen arloan, eta Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion eskumenen baitan hainbat sektoretako interesak babestearen eta bultzatzearen arloan duen ordezkaritza-organoa.

*3. artikulua.*– Egitekoak.

Oro har, Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzak honako egiteko hauek ditu, betiere aurreko artikuluan zehaztutako esparruaren barruan:

– Euskal Autonomia Erkidegoak Estatu Batuetan dituen eragile sozialen arteko lankidetza eta elkartzea bultzatzea.

– Bisitak, bilerak eta informazio-trukeak ezartzeko harremanetarako organo izatea.

– Euskal Autonomia Erkidegoko eragileen arteko topaketak antolatzeko azpiegitura eta zentro lagungarri izatea.

– Euskal Autonomia Erkidegoko zerbitzuei eta jarduerei buruzko laguntza teknikoa, aholkularitza eta informazioa eskaintzea.

la propia Ley establece que la actividad que se realice desde las Comunidades Autónomas es fruto de una expresión solidaria de la propia sociedad, al tiempo que se basa en los principios de autonomía presupuestaria y autorresponsabilidad en su desarrollo y ejecución. A estos efectos, la existencia de una Delegación en EEUU facilitaría la colaboración con Organismos Multilaterales allí radicados para fomentar la actividad solidaria de Euskadi.

En el ámbito económico existen actividades regulares y satisfactorias de carácter industrial a través de la oficina de la SPRI en Chicago, y se mantienen relaciones en materia de ciencia, tecnología, justicia o cultura, destacando la vinculación del Museo Guggenheim Bilbao con el de Estados Unidos.

La importancia de todas estas actividades aconseja la creación de una Delegación de Euskadi en Estados Unidos.

En su virtud, y a propuesta de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 20 de febrero de 2007,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Creación.

Se crea en el seno de la Secretaría General de Acción Exterior, la Delegación de Euskadi en Estados Unidos.

*Artículo 2.*– Ámbito de aplicación.

La Delegación de Euskadi en Estados Unidos es el órgano de representación de la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de cooperación al desarrollo, relaciones con las Colectividades Vascas y de defensa y promoción de intereses multisectoriales en el ámbito de las competencias que corresponden a la Comunidad Autónoma de Euskadi.

*Artículo 3.*– Funciones.

Con carácter general, corresponde a la Delegación de Euskadi en Estados Unidos, en el marco de actuación señalado en el artículo anterior las siguientes funciones:

– Promover la colaboración y el encuentro entre los agentes sociales de la Comunidad Autónoma de Euskadi en Estados Unidos.

– Servir de órgano de relación para el establecimiento de visitas, encuentros, e intercambios de información.

– Servir de infraestructura y de centro de apoyo para el establecimiento de encuentros en Estados Unidos entre operadores de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

– Asesoramiento técnico, orientación e información sobre los servicios y actuaciones de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

– Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatu Batuetako eragileek dituzten beharren aurreikuspenak baloztatzea eta dagozkien proposamenak bideratzea.

*4. artikulua.*– Euskadiren ordezkaria Estatu Batuetan.

1.– Euskadiren Estatu Batuetako ordezkariak zuzendari-maila izango du ekainaren 30eko 7/1981 Legean jasotakoaren ondorioetarako.

2.– Euskadiren Estatu Batuetako ordezkaria Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren organoen funtzionamenduen mende egongo da, eta honako zeregin hauek izango ditu bere esparruan:

a) Estatu Batuetan bizi diren langileak kontratatzea eta langileekin nahiz erakunde publiko eta pribatuekin enpresaburuek dituzten eskumenak betetzea.

b) Kontratazio-organo izatea, bai Herri Administrazioen kontratuei buruzko legedian araututako kontratu txikietan, bai higiezinen errentamendu-kontratuetan, Euskadiko Ondareari buruzko azaroaren 17ko 5/2006 Legearen 41. artikuluko a) eta b) letretan aurreikusitakoaren arabera.

c) Herri Administrazioetan Eusko Jaurlaritza ordezkatzea ordezkaritzaren ohiko funtzionamendurako beharrezkoak diren izapide guztietan, eta, zehazki, tributuak kudeatzean eta ordaintzean nahiz baimenak lortzean.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

***Lehenengoa.***– Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzak, zuzendaritzaren maila organikoa izanik, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren mende jardungo du zuzen-zuzenean eta hierarkikoki. Era berean, Kanpo Harremanetarako zuzendariarekin koordinaturik egingo du lan.

***Bigarrena.***– Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzak funtzionatzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak izango ditu.

***Hirugarrena.***– Aldez aurretik beharrezkoak diren izapideak egin eta gero, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari ahalmena ematen zaio Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritza abian jartzeko beharrezko neurriak har ditzan.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Lehendakaritzak emango ditu dekretu hau garatzeko eta betetzeko behar diren xedapenak.

– Evaluar las previsiones de las necesidades de los operadores de la Comunidad Autónoma de Euskadi en Estados Unidos y canalizar las propuestas correspondientes.

*Artículo 4.*– Delegado de Euskadi en Estados Unidos.

1.– La persona titular de la Delegación de Euskadi en Estados Unidos, tendrá, a los efectos previstos en la Ley 7/1981, de 30 de junio, el rango de Director o Directora.

2.– Bajo la dependencia funcional de los órganos correspondientes de la Presidencia del Gobierno y del Departamento de Hacienda y Administración Pública, la persona titular de la Delegación de Euskadi en Estados Unidos ejercerá, en su propio ámbito, las funciones referidas a:

a) Contratar personal laboral residente en Estados Unidos y ejercer las facultades propias del empresario ante los trabajadores y sus representantes y ante las instituciones públicas y privadas.

b) Actuar como órgano de contratación en los contratos menores regulados en la legislación de contratos de las Administraciones Públicas, y en los contratos de arrendamiento de inmueble en los términos previstos en las letras a) y b) del apartado 2 del artículo 41 de la Ley 5/2006, de 17 de noviembre, del Patrimonio de Euskadi.

c) Representar al Gobierno Vasco ante las Administraciones Públicas en todos los trámites que sean necesarios para el funcionamiento habitual de la Delegación, y en particular, para la gestión y pago de tributos y obtención de licencias y autorizaciones.

DISPOSICIONES ADICIONALES

***Primera.***– La Delegación de Euskadi en Estados Unidos, con nivel orgánico de Dirección, actuará bajo la dependencia directa y jerárquica del Secretario General de Acción Exterior y en coordinación con el Director de Relaciones Exteriores.

***Segunda.***– La Delegación de Euskadi en Estados Unidos dispondrá de los medios materiales y personales necesarios para su funcionamiento.

***Tercera.***– Se faculta a la Secretaría General de Acción Exterior para, previos los trámites oportunos, adoptar las medidas necesarias para la puesta en funcionamiento de la Delegación de Euskadi en Estados Unidos.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– La Presidencia del Gobierno – Lehendakaritza, dictará las disposiciones precisas para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Bigarrena.*– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko otsailaren 20an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### 1381

AGINDUA, 2007ko otsailaren 1ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak prestakuntza-jarduerak homologa ditzan bete beharreko eskakizunak eta prozedura arautzeko dena.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari buruzko uztailaren 27ko 16/1983 Legeak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta eginkizunak arautzen dituen urriaren 14ko 241/2003 Dekretuak diotenez, erakunde horren arduretako bat da euskal herri-administrazioetako zerbitzura diharduten langileen prestakuntza eta hobekuntza.

Zehazki, dekretuaren 13. artikuluak xedatzen duenez, Prestakuntza Zerbitzuari dagokio herri-erakundeek eta bestek emandako ikasketa planak homologatzea.

Araudi hori betez, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariak 2001eko ekainaren 13an (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta 2001eko ekainaren 26an), 2002ko otsailaren 12an (EHAAn argitaratuta 2002ko otsailaren 27an) eta 2004ko otsailaren 24an (EHAAn argitaratuta 2004ko martxoaren 15ean) Ebazpenak eman zituen.

Lehen Ebazpena onartu zenetik igarotako denborak, agerian utzi du bitarteko juridiko berri baten beharra homologazio prozedurari berma juridiko handiagoa emateko, eta Administrazio desberdinek hainbat kontzepturi emandako interpretazioa argitzeko.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, foru-administrazioa, toki-administrazioa eta horien erakunde autonomoak ez diren beste Administrazio maila batzuei aplikazio-esparru subjektiboa zabaltzea beharrezkoa da.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 20 de febrero de 2007.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### 1381

ORDEN de 1 de febrero de 2007, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se regulan los requisitos y el procedimiento para la homologación de acciones formativas por parte del Instituto Vasco de Administración Pública.

La Ley 16/1983, de 27 de julio, sobre Régimen Jurídico del Instituto Vasco de Administración Pública y el Decreto 241/2003, de 14 de octubre, por el que se regula la estructura y funciones del Instituto Vasco de Administración Pública, establecen entre los fines de dicho Instituto la formación y perfeccionamiento del personal al servicio de las Administraciones Públicas vascas.

En concreto, el artículo 13 del Decreto dispone que corresponde al Servicio de Formación homologar los planes de estudio impartidos, entre otros, por las instituciones públicas.

En aplicación de la citada normativa por parte del Director del Instituto Vasco de Administración Pública se dictaron las Resoluciones de 13 de junio de 2001 (publicada en el Boletín Oficial del País Vasco de 26 de junio de 2001), de 12 de febrero de 2002 (publicada en el BOPV de 27 de febrero de 2002) y de 24 de febrero de 2004 (publicada en el BOPV de 15 de marzo de 2004).

El período transcurrido desde la aprobación de la primera de las Resoluciones ha puesto de manifiesto la necesidad de un nuevo instrumento jurídico que dote de mayor seguridad jurídica al procedimiento de homologación, y que clarifique determinados conceptos que han estado sujetos a la distinta interpretación por parte de las Administraciones.

Asimismo, resulta necesario ampliar el ámbito subjetivo de aplicación a otros niveles de Administración distintos a la Administración General, Foral y Local y sus Organismos Autónomos.